BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5565

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, bandak, irristailuak, kakoak eta parrillak fabrikatzeko eta metalak tratatu eta estaltzeko instalaziorako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Aizarnazabalgo (Gipuzkoa) udalerrian eta Obe Hettich SL En Com enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 14an, Esteban Viñolas Prat jaunak, Obe Hettich SL En Com enpresaren izenean eta berau ordezkatuz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Aizarnazabalgo (Gipuzkoa) udalerrian bandak, irristailuak, kakoak eta parrillak fabrikatzeko eta metalak tratatu eta estaltzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Aizarnazabalgo Udalak emandako aldeko hirigintza-txostena eta agiri tekniko hauek aurkeztu zituen:

- 1. liburukia: «Proiektu teknikoa» (2006ko abendua).
- 2. liburukia: «eranskinak (3tik 1)» (2006ko abendua).
- 3. liburukia: «eranskinak (3tik 2)» (2006ko abendua).
- 4. liburukia: «eranskinak (3tik 3)» (2006ko abendua).
- 5. liburukia: «Laburpen ez-teknikoa» (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Obe Hettich SL En Com (Aizarnazabal) enpresak, besteak beste, Jarduerarako Baimena, 2002ko maiatzaren 30ekoa, Burdineriak, Burdindegiko Gaiak eta Antzekoak Fabrikatzeko jarduerarako eman zitzaion, eta Irekitzeko Baimena, 2002ko ekainaren 6koa, zituen. Horretaz gain, enpresa sustatzaileak ondorengo baimenak zituen: baldintza bereziei lotuta urak biltzeko administrazio-baimena, 2003ko martxoaren 18koa, ur sanitarioak kolektorera isurtzeko baimena, 2006ko otsailaren 6koa, eta industria-urak eta ur sanitarioak ibilgura isurtzeko baimena, 2002ko urriaren 30ekoa (hasierako baimena 1993koa zen; ondorengo berritzea, 2006koa), urari buruz indarrean den araudian xedatutakoari jarraituz; hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimenak, 2003ko urtarrilaren 15ekoak (ondoren, hiru aldaketa izan ziren, 2003ko apirilaren 10ean, 2003ko uztailaren 15ean eta 2004ko uztailaren 15ean), eta hondakin geldoen ekoizleen erregistroan inskripzioa, 2003ko uztailaren 28koa, hondakinei buruz indarrean den araudian xedatutakoaren arabera; atmosfera kutsatu dezakeen instalazioren ziurtagiria, 2002ko urriaren 25ean emana, atmosferara egindako isurtzeen inguruan indarrean den araudiak xedatutakoari jarraituz; eta produktu kimikoak biltegiratzeko instalazioa abian jartzearen ziurtagiria, 2003ko ekainaren 19an emana (ondoren aldaketa-zabaltzea izan zen, 2006ko azaroaren 15ean), produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean den araudiak xedatutakoari jarraituz.

2007ko otsailaren 19an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori (Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordetza eta Aizarnazabalgo

Udala) txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez.

2007ko martxoaren 19an eta urriaren 2an Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko urriaren 11n osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoak zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Obe Hettich SL En Com enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Aizarnazabalgo Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko otsailaren 11n, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Obe Hettich SL En Com enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpen-proposamena gehituz.

2008ko otsailaren 29an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa betez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Obe Hettich SL En Com enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena, saneamendu-sare orokorrera

isurketak egiteko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Obe Hettich SL En Com enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Aizarnazabalgo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics BREF txostenaren edukia kontuan hartu da. Gainera, arau sektorialei dagokienez, kasu honetan aplikatzekoa da, bereziki, ontzi eta ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Obe Hettich SL En Com enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko otsailaren 7an emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legea, eta aplikatzekoa den gainerako araudia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aizarnazabalgo (Gipuzkoa) udalerriko Etxezarreta industrialdea 1. zenbakian helbide soziala eta IFK: B-20032330 zenbakia duen Obe Hettich SL En Com enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Aizarnazabalgo udalerrian bandak, irristailuak, kakoak eta parrillak fabrikatzeko eta metalak tratatu eta estaltzeko jarduerarako, eta Ebazpen honetako Bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Prozedura elektrolitiko edo kimikoaren bidez metalen eta material plastikoen azal-tratamendurako instalazioak, tratamendura bideratuta erabilitako kubeta edo lerro guztien bolumena 30 m^3 baino handiagoa denean» izenekoan.

Enpresa Gipuzkoako Aizarnazabalgo udalerriko Etxezarreta industrialdeko 1. zenbakian kokatzen da.

Instalazioak euren artean 90 metroko distantzia duten bi industria-nabez osatuta daude, eta ondorengo ezaugarriak dituzte:

● Hegoaldean 1. pabiloia dago eta bertan, diseinuari, fabrikazioari (azal-tratamenduaren azpiprozesua salbu) eta banda, irristailu eta kakoen merkaturatzeari eta Hettich produktuen merkaturatzeari dagozkien jarduerak garatzen dira.

● 2. pabiloian azal-tratamenduaren azpiprozesua eta Hettich Iberiaren Hettich produktuen merkaturatzea garatzen dira.

Obe Hettich SL En Com enpresaren produkzio-jarduerak ondorengo prozesuak ditu:

● Altzairuentzako eta lerro zurirako banda, irristailu eta kakoak diseinatu, produzitu eta merkaturatzea.

● Altzairuarentzako burdineriak merkaturatzea.

● Bandak fabrikatzeko jardueraren azpiprozesu gisa, altzairuzko eta zamakeko piezen estaldura elektrolitikoa dago.

Ondorengo taulan 2005 urteari dagokion produkzioa jasotzen da:

Produktoa/Serbitzua	Ekoizpen-ahalmena	2005eko ekoizpena (Unitateak)	2005eko ekoizpena (Tonak)
Bandak	92.000.000	71.694.113	-
Gidariak	26.000.000	18.973.391	1.957
Esekitokiak	20.000.000	378.060	25
Parrillak	150.000	16.516	-
Merkaturatzea	-	189.301.862	-
Bainu elektrolitikoak	2.300 Tn	-	2.071

Prozesuaren deskribapena:

Erabilitako energiak eta kontsumoak.

● 2005 urtean 3.375 MWh/urteko energia elektriko kontsumitu zen.

● 2005 urtean 343 MWh/urteko izan zen propanoaren kontsumoa.

● Urtean zehar 1.000 litro inguru gasolio kontsumitzen dira.

Aplikatutako prozesuko teknologia.

Enpresak garatzen dituen prozesuen barruan, ondoren deskribatutakoak dira nagusiak:

Bandak eta osagarriak muntatzea, irristailuak muntatzea, kakoak muntatzea, parrillak muntatzea eta Hettich produktuak merkaturatzea. Banden erdilanketaren prozesu osagarri gisa, bainu elektrolitikoen prozesua gauzatzen da. Modu bereizian deskribatzen da eta ingurumenari dagokionez garrantzi handieneko jardueretako bat da.

Bandak eta osagarriak muntatzeko prozesua.

Bandak eta osagarriak fabrikatzeko prozesua erdilandutako osagai desberdinak eskuratzearen bidez gauzatzen da eta bereziki, kobre eta nikelez estalitako altzairuzko piezez eta paketatzeko osagaiez (kartoia eta plastikoa) osatzen da. Osagaietako batzuk estalita eskuratzen dira eta beste batzuk instalazioetan bertan estaltzen dira.

Bainu elektrolitikoen azpiprozesua.

Gaur egun, prozesu hau banden prozesuaren atal osagarria da, erdilandutako osagaien % 50 ingururi kobre eta nikelezko bainua ematean oinarritzen baita. Instalazioek bi produkzio-lerro dituzte, dunbalen bikoitz bat eta dunbalen bakun bat. Altzairu gordineko piezak dunbaletan sartzen dira eta sekuentzien bidez garbiketa, aktibatze, pasibatze eta kobre eta nikelez estaltzeko estazio desberdinetatik pasatzen dira.

Irristailuak muntatzeko prozesua.

Irristailuak fabrikatzeko prozesua lehengai nagusia altzairuzko bandan eskuratzearen bidez gauzatzen da, elektrozinkatze estaldura eta paketatzeko osagaiak (kartoia eta plastikoa) dituena. Irristailuek 2 profil, barrukoa eta kanpokoa, barruko plastikozko pieza bat eta errodamendu gisa jarduten duten bolatxo txikiak dituzte. Altzairuzko bi bandak profilaketa- eta estanpazio-prozesuan harilkatzeko tresnen bidez sartzen dira eta ondoren, gainerako osagaiekin batera muntatzen dira.

Kakoak muntatzeko prozesua.

Kakoak fabrikatzeko prozesua erdilandutako osagai desberdinak eskuratzearen bidez gauzatzen da, eta bereziki, karkasa zinkatuz, torlojuz eta zamakeko irristailuz eta paketatzeko osagaiez (kartoia eta plastikoa) osatzen da. Karkasa eskuz elikatzen da eta muntaia automatikoa da, irristailuaren hariztaketa izan ezik. Makina automatizatuak daude, muntai-estazioak dituztenak, bereziki pneumatikoa. Estazio horiek muntaia, paketatzea eta paletetan jartzea gauzatzen dute kakoen lerroan.

Parrillak muntatzeko prozesua.

Parrillak fabrikatzeko prozesua erdilandutako osagai desberdinak eskuratzearen bidez gauzatzen da, eta bereziki, parrillak, irristailuak eta errematxeak dira. Prozesua parrillaren bi aldeetan 2 irristailu errematxatzean oinarritzen da.

Produktuak merkaturatzeko prozesua.

Obe Hettich SL En Com enpresak merkaturatzen duen produktu-sorta zabalaren zati handi bat taldetik inportatzen diren eta bezeroen eskakizunen arabera eskaerak prestatu eta instalazioetatik

bidaltzen diren produktuei dagokie. Horretarako, hartze-, biltegiratze- eta bidalketa-guneak, eta paketatzeaz arduratzen diren langileak daude.

Atmosferara eta uretara egindako isurtzeak eta hondakinak.

Obe Hettich SL En Com enpresan atmosferara isurtzen duten bi isurtze-foku daude, eta halaber, sailkapenetik salbuetsita dagoen beste foku bat ere:

Instalazioetan hiru isurketa-puntu daude: azken bi isurketa-puntu Urola ibaira (industria-urak eta ur sanitarioak) eta azken isurketa-puntu bat udaleko saneamendu-sarera (ur sanitarioak), euren jatorriaren arabera arazketa-prozesu desberdinetatik pasatu ondoren.

Efluente-mota	Prozesua	Arazteko metodoak	Emaria (m^3/urtean)	Helmuga	Isurketa-puntua	
Industrialak 1	Azal-tratamendua	Araztegi fisiko-kimikoa eta desmineralizazioa/ birziklatzea	23.089	Urola ibaia	A1	A
Sanitarioak 1	Zerbitzu orokorrak, 1. pabiloia, iparra	1. hobi septikoa	1.298		A2	
Sanitarioak 2	Zerbitzu orokorrak, 1. pabiloia, hegoa	2. hobi septikoa	411	Urola ibaia	B	
Industrialak 2	Hozte-dorrea		560			
Industrialak 3	Konpresoreak	Olio eta uraren 1. eta 2. bereizgailuak	79			
Sanitarioak 3	Zerbitzu orokorrak, 2. pabiloia	Udaleko hobi septikoa	361	Udaleko saneamendu-sarea	C	

Ibilgu hartzaileak kutsatzeko arriskurik ez duten euri-urak modu bereizian jasotzen dira eta Urola ibaira isurtzen dira soilik euri-urentzako diren 2 isurketa-puntutatik eta industria-uren eta ur sanitarioen hirugarren isurketa-puntu batetik (aurreko taulako A isurketa-puntua).

Obe Hettich SL En Com enpresan hondakin arriskutsuak, ez-arriskutsuak eta hiriko hondakinekin asimilagarriak direnak sortzen dira. Horiek guztiak baimendutako kudeatzaileek kudeatzen dituzte.

Sortutako hondakin arriskutsu nagusia hondakin-uren arazketa-prozesuan sortutako lohi galbanikoak dira.

Hondakin ez-arriskutsuei dagokienez, txatarra, zura eta kartoia nabarmentzen dira, eta guztiak birziklatu egiten dira.

Obe Hettich SL En Com enpresak aurkeztutako proiektuak teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak barneratzen ditu: uraren erabilera kontrolatzeko emari-neurgailuak dituzte; arrasteak xukatze-denborak optimizatuz saihesten dira; garbiketa estankoak eta korrontearen kontrako urberritzeak dituzte, hainbat etapatan; prozesu kimikoen kontzentrazioaren kontrol zehatza egiten dute; kutsatzaileak ezabatzeko bainuak aldizka iragazi eta garbitzen dituzte; koipegabetze biologikoa dute; isurketa-uren monitorizazioa.

Bigarrena.– Obe Hettich SL En Com enpresak Aizarnazabalgo udalerrian sustatutako bandak, irristailuak, kakoak eta parrillak fabrikatzeko eta metalak tratatu eta estaltzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Obe Hettich SL En Com enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Etxezarreta industrialdeko 1. zenbakian (Aizarnazabal, Gipuzkoa) kokatzen den Obe Hettich SL En Com enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala eraiki, ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Obe Hettich SL En Com instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Diametroa	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	20004738-01	Bainu elektrolitikoa 1	7,5	0,38	C	561.766	4.790.175
2	20004738-02	Bainu elektrolitikoa 2	7,5	0,38	C	561.766	4.790.175
3-D	20004738-03-D	Soldatzea 1	5	X	Foku ez-sistematikoa	561.976	4.790.077

Sustatzaileak Soldatzea 1 izeneko 3-D fokuaren diametroa aurkeztu beharko du.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokuak	Substantzia	Isurtzeko muga-balioak
1. fokua: Bainu elektrolitikoa 1	HF	5 mg/Nm^3
	HCN	3 mg/Nm^3
	Cu	0,02 mg/Nm^3
	Partikulak	30 mg/Nm^3
	SOx*	10 mg/Nm^3
	NOx	500 mg/Nm^3
	Zn	0,5 mg/Nm^3
	HCl*	30 mg/Nm^3
	Guztizko Cr*	0,2 mg/Nm^3
	Ni*	0,1 mg/Nm^3
2. fokua: Bainu elektrolitikoa 2	HF	5 mg/Nm^3
	HCl	30 mg/Nm^3
	HCN*	3 mg/Nm^3
	Zn*	0,5 mg/Nm^3
	Ni	0,1 mg/Nm^3
	Partikulak	30 mg/Nm^3
	SOx	10 mg/Nm^3
	NOx	500 mg/Nm^3
	Cu*	0,02 mg/Nm^3
	Guztizko Cr*	0,2 mg/Nm^3

* Ebazpen honetako C.1.b) puntuan adierazten den moduan BKEek egindako atmosferarako neurketen txostenean lortutako emaitzen arabera, kutsatzaile honi ezarri beharreko muga aztertuko da.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо, arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei (KOG bezala neurtuta) dagokienez, ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta gainditzen isurtzeko muga-balioak neurketa guztien batez bestekoak ez baditu, eta ordubeteko neurketek ez baditzute gainditzen isurtzeko muga-balioak, 1,5 baino gehiagogatik.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira, Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.1.2.– Isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: bandak, irristailuak, kakoak eta parrillak fabrikatzea eta metalak tratatu eta estaltzea.

Jarduera-taldea: Gainazalen eta metalaren tratamendua.

Mota-taldea-EJSN: 3-16-28630 eta 2-1-28510.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
A	A1 Industrialak 1	Azal-tratamendua / Araztegia	Urola ibaia	Urola	I	X: 561.963 Y: 4.790.054
	A2 Sanitarioak 1	Zerbitzu orokorrak, 1. pabiloia, iparra / Hobi septikoa 1				
B	Sanitarioak 2	Zerbitzu orokorrak, 1. pabiloia, hegoa / Hobi septikoa 2				
	Industrialak 2	Hozte-dorrea, irristailuak				
	Industrialak 3	Konpresoreen purgatzeak				

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) Isurketa industriala 1: prozesuko industria-urak.

Orduko puntako emaria	4,4 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	105 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	23.089 m^3/urtean

b) Isurketa industriala 2: hozte-dorrea.

Eguneko gehienezko bolumena	2,6 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	560 m^3/urtean

c) Isurketa industriala 3: konpresoreen purgatzeak.

Eguneko gehienezko bolumena	0,36 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	79 m^3/urtean

d) Etxeko uren isurketa 1: 1. pabiloia, iparra.

Eguneko gehienezko bolumena	5,9 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	1298 m^3/urtean

e) Etxeko uren isurketa 2: 1. pabiloia, hegoa.

Eguneko gehienezko bolumena	1,9 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	411 m^3/urtean

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ondorengo zerrendan ageri dira ibilgura edo saneamendu-sarera egiten diren isurketen kutsaduraren parametroen ezaugarri nagusiak, bakoitzarentzat ezarritako gehienezko muga-balioekin:

a) Isurketa industriala 1: prozesuko industria-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	160 mg O2/l
Solido esekiak (S.E.)	30 mg/l
Olioak eta koipeak (A eta G)	20 mg/l
Amoniakoa (NH3)	15 mg/l N
Detergenteak	2 mg/l
Burdina (Fe)	2 mg/l
Nikela (Ni)	1 mg/l
Zinka (Zn)	2 mg/l
Kobrea (Cu)	0,2 mg/l
Kromo hexabalentea (Cr VI)	0,1 mg/l
Guztizko kromoa (CrT)	1 mg/l
Guztizko zianuroak (CN-)	0,5 mg/l
Zianuro askeak	0,1 mg/l
Kloruroak (Cl-)	1.500 mg/l
Sulfatoak (SO4=)	1.500 mg/l

b) Ur sanitarioen isurketak: 2. eta 3. hobiak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	160 mg/l
Oxigeno-eskari biologikoa (DBO5)	40 mg/l
Solido esekiak (S.E.)	80 mg/l
Olioak eta koipeak (A eta G)	20 mg/l
Amoniakoa (NH3)	15 mg/l N
Detergenteak	2 mg/l

c) Hozte-purgatzeen eta konpresoreen bereizgailuen industria-uren isurketa.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	160 mg/l
Solido esekiak (S.E.)	80 mg/l
Olioak eta koipeak (A eta G)	20 mg/l
Zinka (Zn)	2 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek ez du baldintza honetan berariaz adierazitakoak ez diren beste substantzien isurketarik onartzen, batez ere maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren substantzia arriskutsuak. Errege Dekretu horren bidez, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I, IV, V, VI eta VIII. tituluak garatzen dituen jabari publiko hidraulikoari buruzko araudia onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da.

2. pabiloitik udal kolektorera isurtzen diren erabilera higienikoko uren isurketek dagozkien ordenantzak bete beharko dituzte eta Udalaren nahitaezko baimena izan beharko dute, edo modu subsidiario batean, Gipuzkoako Ur Kontsortzioarena.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek honako jarduera hauek barne hartuko dituzte funtsean:

Estaldura elektrolitikoaren prozesuan sortutako industriako hondakin-urek arazketa-sistema konbinatu bat dute. Funtsean, Urola ibaira isuri aurretik, ur kontzentratuenak tratamendu fisiko-kimiko baten (araztegia edo EDAR) menpe jartzean oinarritzen da. Bestalde, kontzentrazio txikiagoa duten urek desmineralizazio-birziklatze tratamendu bat jasaten dute (hemendik aurrera desmineralizatzailea), ur horiek produkzio-prozesuan berrerabil daitezen ahalbidetzeko.

Arazketa-sistema biltzeko eta ponpatzeko hobi bereizi batzuetan abiatzen da, garbiketa alkalinoen eta azido diluituen tratamendura bideratzen dena; halaber, kontzentratu alkalino-zianuratuak biltzeko eta ponpatzeko hobiak (ur azidoen tratamendu-lerroaren bidez doazenak).

Ur azidoen tratamendu-lerroko urek oxidazioaren bidezko zianuro-kentze prozesu bat jasaten dute, 10 m^3-ko upel batean pH-a eta rH-a erregulatuz eta hipoklorito eta soda dosifikatuz.

Uren bi tratamendu-lerroak koagulazio-ganbera bakar batean batzen dira, pH-a erregulatzen duena eta azido sulfurikoa, sulfato ferrosoa eta ur oxigenatua gehitzen duena. Ondoren, kare-azidoaren eta ikatz aktiboaren bidez neutralizazioa gauzatzen da. Neutralizatu ondoren, urak ponpatu eta malutatu egiten dira, nahasgailu estatikoa duen hoditerian polielektrolitoa gehituz. Ondoren, dekantatzaile estatiko-zilindro-konoenborkarera pasatzen dira eta bertan, sortutako malutak dekantatzen dira.

Urak tratamendua jarraitzen du hondar-iragazkietatik pasatuz, azido sulfurikoaren dosifikazio automatikoaren bidez pH-a doituz, zeolita-zutabe batean iragaziz eta azkenik, finketa erretxina selektiboekin ioi-elkartrukeko bi zutabeen bidez.

Bestalde, lohiak 5 m^3-ko ahalmena duen lodigailu zilindriko-konoenborkara batean tratatzen dira eta ondoren, deshidratazio mekanikoa jasaten dute prentsa-iragazki baten bidez. Ateratako ura modu egokian birzirkulatzen da zianuroa kentzeko prozesura edo neutralizazio-prozesura.

Arazketa-prozesuan sortutako lohiak aldi baterako biltegiratzen dira eta hondakin arriskutsu gisa kudeatzen dira baimendutako kudeatzailearen bidez.

Bi bainuetako lerroen azken garbiketetatik sortutako urak birziklatu edo desmineralizatzeko prozesua, 8 m^3-ko ahalmena duen desmineralizatzeko ur-hobi batean bilduz hasten da. Lehen urratsa hareazko ohantzean iragazte-zutabe baten bidez gauzatzen da, eta ondoren, ikatz aktiboko

ohantze batean iragazten da. Jarraian, ura seriean dauden hiru baterien bidez jariatzen da, hurrenez hurren, erretxina kationiko, anioniko ahul eta anioniko indartsuak dituzten ioi-elkartrukeko bi zutabe dituztenak Azkenik, ura ur desmineralizatuaren andelean biltegiratzen da, berrerabiltzeko zain.

Instalazioaren funtzionamendua automatizatua da, eta elektroponpak eta elektroirabiagailuak abian jartzea eta gelditzea zuzentzen duten mailako etengailuak ditu. Instalazioa automatizatua dago, horrela, biltegiratze kontzentratuen andelak edo garbiketa-upelak maila altuenean daudenean, alarma optiko-akustikoa abian jartzen da eta soilik langileak berrasieratu dezake.

Produktu kimikoen dosifikazioa erredox-neurgailu eta ph-neurgailu baten bidez kontrolatzen da, eta horiek koadrotik kontrolatzen dira. Desbideratuz gero, tresna bakoitzari lotutako funtzioak blokeatu egiten dira, eta modu horretan, bata bestearen segidan, instalazio osoa. Elektrodoen aldetik irakurketa bermatze aldera, zundek autogarbiketa kimikoa modu automatikoan jasaten dute.

Automatismoen zerrenda honek instalazioaren fidagarritasuna agerian utzi du eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemak araututa, laborategiko aldizkako analisiek baieztatu dute.

1. pabiloitik sortutako ur sanitarioak ibilgura isuri aurretik, iragazki biologikoa duten 2 hobi septikoren bidez tratatzen dira.

2. pabiloitik sortutako ur sanitarioak zuzenean isurtzen dira udaleko sistemako kolektorera.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Obe Hettich SL En Com enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko behar dituen ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

Kasu honetan, industria-prozesuko efluentea kontrolatzeko nahitaezkoa da ondorengo elementuak izatea:

Bukaerako kontroleko upelean pH-a modu jarraituan erregistratzea eta bi kontsigna-puntu dituzten alarmak. PH-aren neurketa puntualeko eta datu historikoak biltegiratu eta inprimatzeko sistemaren adierazleak izango dira, eta Administrazioaren esku egon beharko dira.

Hozte-zirkuituko zink gehigarriak ezabatu egingo dira.

B.1.2.5.– Isurien Kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien Kontrol-kanona= V × Pu.

Pu = Pb × Cm.

Cm = C2 × C3 × C4.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

Pu = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

Pb = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

Cm = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

C2 = Koefizientea, isurketaren ezaugarrien arabera.

C3 = Koefizientea, isurketaren kutsadura-mailaren arabera.

C4 = Koefizientea, ingurune hartzailearen kalitatearen arabera.

Industria-prozesuko uren isurketa:

V: Bolumena: Pb: Hondakin-ura: Industriala C2: Gai arriskutsuak dituen mota C3: Tratamendu egokia C4: Kategoria-eremua: I	V = 23.089 m^3/urtea Pb = 0,03005 €/m^3 C2 = 1,28 C3 = 0,5 C4 = 1,25

Cm = 1,28 × 0,5 × 1,25 = 0,800000.

Pu = 0,03005 × 0,8 = 0,024040 euro/m^3.

2. isurketa: 2. eta 3. hobietako ur sanitarioak:

V: Bolumena: Pb: Hondakin-ura: Hirikoa C2: 1. mota C3: Tratamendu egokia C4: Kategoria-eremua: I	V = 1.298 + 411 = 1.709 m^3/urte Pb = 0,01202 €/m^3 C2 = 1,0 C3 = 0,5 C4 = 1,25

Cm = 1,0 x 0,5 × 1,25 = 0,625000.

Pu = 0,01202 × 0,625000 = 0,007513 euro/ m^3.

Hozte-purgatzeen eta konpresoreen bereizgailuen industria-uren isurketa:

V: Bolumena: Pb: Hondakin-ura: Hirikoa C2: 1. mota C3: Tratamendu egokia C4: Kategoria-eremua: I	V = 560 + 79 = 639 m^3/urte Pb = 0,030050 €/m^3 C2 = 1,0 C3 = 0,5 C4 = 1,25

Cm = 1,0 × 0,5 × 1,25 = 0,625000.

Pu = 0,030050 × 0,6250 = 0,018781 euro/m^3.

IKK = 23.089 × 0,024040 + 1.709 × 0,007513 + 639 × 0,018781 = 579,90 euro/urte.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira balioztatzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira, eta hala badagokio, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideak.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira ezbeharrean gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Aizarnazabalgo Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

● 1. prozesua: «Estaldura elektrolitikoa».

○ 1. hondakina: «iragazteko materialak (nikela)».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//S35//C5/51//H6//A241//B3126.

– EHZ kodea: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 tona.

Nikel-bainuko iragazkiak aldatzerakoan sortzen dira; nikel-konposatuak dituen iragazketa-papera da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «iragazteko materialak (kobrea/zianuroa)».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//S35//C6/21//H6//A241//B3126.

– EHZ kodea: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Kobre-bainuko iragazkiak aldatzerakoan sortzen dira; kobre- eta zianuro-konposatuak dituen iragazketa-papera da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 3. hondakina: «kobre-anodoak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R4//S40//C6//H14//A241//B3126.

– EHZ kodea: 110198.

– Urtean sortutako kantitatea: 400 kilogramo.

Kobreztaketa elektrolitikoko upeleko kobre agortuaren anodoak aldatzerakoan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 4. hondakina: «nikel-anodoak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/1/4.

– Hondakinaren kodea: Q6//D15//S40//C5//H5//A241//B3126.

– EHZ kodea: 110198.

– Urtean sortutako kantitatea: 600 kilogramo.

Nikeleztatze elektrolitikoko upeleko nikel agortuaren anodoak aldatzerakoan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 5. hondakina: «koipegabetze-lohiak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/1/5.

– Hondakinaren kodea: Q8//R13//P21//C24//H5//A241//B3126.

– EHZ kodea: 110113.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.500 kilogramo.

Azal-tratamenduko prozesuko koipegabetze elektrolitiko eta kimikoko upela garbitu ondoren sortzen den hondakina da.

Balezta-bidoietan jasotzen da eta hondakin arriskutsuen biltegi nagusian biltegiratzen da.

○ 6. hondakina: «upelen garbiketaren karbonatoak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/1/6.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S27//C6/21//H6//A241//B3126.

– EHZ kodea: 190205.

– Urtean sortutako kantitatea: 600 kilogramo.

Azal-tratamenduko prozesuko kobre-bainuen upelen kanpoaldea garbitu ondoren sortzen den hondakina da.

Balezta-bidoietan jasotzen da eta hondakin arriskutsuen biltegi nagusian biltegiratzen da.

○ 7. hondakina: «kobre garbiketaren karbonatoak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/1/7.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S-L27//C24//H5//A241//B3126.

– EHZ kodea: 190205.

– Urtean sortutako kantitatea: 800 kilogramo.

Azal-tratamenduko prozesuko kobre-garbiketaren upelak garbitu ondoren sortzen den hondakina da.

Balezta-bidoietan biltzen da eta hondakin likidoa izanez gero, isuriak biltzeko kubetan biltegiratzen da, hondakin arriskutsuen biltegi nagusian.

○ 8. hondakina: «azido nitrikoaren disoluzioa».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/1/8.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//L21//C23//H8//A241//B3126.

– EHZ kodea: 060105.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Azal-tratamenduko prozesuko desugertze-bainuaren bizitza baliagarria agortu ondoren sortzen den hondakina da.

GRG andeletan jasotzen da eta isuriak biltzeko kubeta batean biltegiratzen da, hondakin arriskutsuen biltegi nagusian.

○ 9. hondakina: «azido fluorhidrikoa».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/1/9.

– Hondakinaren kodea: Q14//D15//L21//C23//H6-8//A241//B3126.

– EHZ kodea: 060103.

– Urtean sortutako kantitatea: Hondakin puntuala.

Azal-tratamenduko prozesuan azido fluorhidrikoa % 60 ez erabiltzearen ondorioz sortutako hondakina da.

Produktuaren beraren bidoian biltegiratzen da hondakin arriskutsuen biltegi nagusian.

○ 10. hondakina: «azido kromikoa».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/1/10.

– Hondakinaren kodea: Q14//D15//S27//C3-23//H6-8//A241//B3126.

– EHZ kodea: 110106.

– Urtean sortutako kantitatea: Hondakin puntuala.

Azal-tratamenduko prozesuan azido kromikoa ez erabiltzearen ondorioz sortutako hondakina da.

Produktuaren beraren bidoian biltegiratzen da hondakin arriskutsuen biltegi nagusian.

● 2. prozesua: «Burdineria fabrikatzea».

○ 1. hondakina: «olio erabilia».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//S35//C51//H5/6//A241//B3144.

– EHZ kodea: 130110.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 tona.

Makinen eta instalazioen olioa birjartzeko lanetan sortzen da; olio mekaniko eta hidrauliko erabiliak eta konpresorearen purgatzearen olioak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «taladrina erabilia».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L9//C51//H5//A241//B3144.

– EHZ kodea: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 800 kilogramo.

Profilaketa-lanetan erabilitako taladrina birjartzerakoan sortzen da; emultsio oliotsu bat da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da eta hondakinen biltegira eramaten da.

● 3. prozesua: «Hondakin-uren tratamendua».

○ 1. hondakina: «lohi galbanikoak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q9//R4//S27//C5/6//H5//A241//B0006.

– EHZ kodea: 110109.

– Urtean sortutako kantitatea: 120 tona.

Araztegiko prentsa-iragazkian sortzen da.

Nikela eta kobrea duten lohiak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da, eta bete ondoren, baimendutako kudeatzaileari entregatzen zaio.

○ 2. hondakina: «iragazketa-hareak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//S23//C51//H5//A241//B0006.

– EHZ kodea: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 4 tona.

Araztegiko iragazketa-hareak birjartzerakoan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 3. hondakina: «ikatz aktiboa».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/3/3.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//S28//C51//H5//A241//B0006.

– EHZ kodea: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 4 tona.

Araztegiko iragazketaren ikatz aktiboa birjartzerakoan sortzen da; materia organikoz kutsatutako ikatz aktiboa da (tentsioaktiboak, olioak, koipeak).

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 4. hondakina: «lohi kontzentratu alkalinoak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/3/4.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//L27//C21/24//H8//A241//B0006.

– EHZ kodea: 110108.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Araztegiko andelak garbitzerakoan sortzen da. Zianuroak dituzten lohi alkalinoak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da, eta bete ondoren, baimendutako kudeatzaileari entregatzen zaio.

○ 5. hondakina: «lohi kontzentratu azidoak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/3/5.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//L27//C3/23//H8//A241//B0006.

– EHZ kodea: 110109.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Araztegiko andelak garbitzerakoan sortzen da. Kromo hexabalentearen konposatuak dituzten lohi azidoak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da, eta bete ondoren, baimendutako kudeatzaileari entregatzen zaio.

○ 6. hondakina: «elkartrukerako erretxinak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/3/6.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//S32//C23-24//H5//A241//B0006.

– EHZ kodea: 190806.

– Urtean sortutako kantitatea: Hondakin puntuala.

Hondakin-uren tratamenduaren prozesuko ioi-elkartrukearen erretxinen bizitza baliagarria agortzerakoan sortzen den hondakina da.

Big bag-etan jasotzen da eta hondakin arriskutsuen biltegi nagusian biltegiratzen da.

○ 7. hondakina: «hondakin-ur oliotsua».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/3/7.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L09//C51//H5//A241//B0006.

– EHZ kodea: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kilogramo.

● 4. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Berunezko bateriak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8//A241//B0019.

– EHZ kodea: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Beruna eta soluzio azidoa duten bateria erabiliak birjartzerakoan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako paletean biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 2. hondakina: «merkuriozko pilak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C16//H6//A241//B0019.

– EHZ kodea: 160603.

– Urtean sortutako kantitatea: 2 kilogramo.

Merkurioa duten pila agortuak biltzeko orduan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 3. hondakina: «hodi fluoreszenteak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6/14//A241//B0019.

– EHZ kodea: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 20 kilogramo.

Merkurioa duten lanpara erabiliak birjartzeko eragiketetan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako kutxan biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 4. hondakina: «disolbatzaile ez-halogenatua».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/4.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kilogramo.

Piezak eta tresnak garbitzean sortzen da; olio- eta koipe-hondarrak dituen disolbatzaile erabilia da.

Erabilera-puntutik zuzenean erretiratzen da, baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko.

○ 5. hondakina: «laborategiko erreaktibo erabiliak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/5.

– Hondakinaren kodea: Q14//D15//L40//C21/22//H6//A241//B0019.

– EHZ kodea: 160506.

– Urtean sortutako kantitatea: 1,5 kilogramo.

Prozesuko uren analisien hondakin gisa sortzen da; bereziki metal alkalinoak eta zianuroak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 6. hondakina: «xurgatzaileak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/6.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C41/51//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 2,5 tona.

Ehunak eta xurgatzaileak biltzean sortzen da; olio eta disolbatzaileekin zikindutako trapuak, papera eta material xurgatzailea dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 7. hondakina: «kutsatutako metalezko ontziak (disolbatzaileak)».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/7.

– Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C41/43//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 50 kilogramo.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; disolbatzaileak eta pinturak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Trinkotu eta hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 8. hondakina: «kutsatutako metalezko ontziak (Ac/Gr/tal)».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/8.

– Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C51//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 1,2 tona.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; olioak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Trinkotu eta hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 9. hondakina: «kutsatutako metalezko ontziak (produktu kimikoak)».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/9.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C3/23//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kilogramo.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; kromo hexabalentea eta azidoen konposatuak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Trinkotu eta hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 10. hondakina: «kutsatutako plastikozko ontziak (produktu kimikoak)».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/10.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C21/41//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 tona.

Ontzi hutsak jasotzerakoan sortzen da; zianuroak, gehigarriak eta estaldura galbanikorako produktuak eduki dituzten plastikozko ontziak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 11. hondakina: «aerosol hutsak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/11.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S-G36//C41//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 26 kilogramo.

Ontzi hutsak biltzerakoan sortzen da; lubrifikatzaileak eta pinturak eduki dituzten aerosolak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuetan. Bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 12. hondakina: «ekipo elektrikoak eta elektronikoak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/12.

– Hondakinaren kodea: Q14//R4//S40//C6/18//H6/14//A241//B0019.

– EHZ kodea: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Bulegoetako tresna informatiko eta telefonikoen mantentze-lanetan eta horiek aldatzerakoan sortzen dira.

○ 13. hondakina: «elektrohigadura-lohiak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/13.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//L08//C51//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 120114.

– Urtean sortutako kantitatea: Hondakin puntuala.

Burdineria fabrikatzeko prozesuko elektrohigadurako makina garbitu ondoren sortzen den hondakina da.

Balezta-bidoietan jasotzen da eta hondakin arriskutsuen biltegi nagusian biltegiratzen da.

○ 14. hondakina: «paperezko eta plastikozko zaku kutsatuak (produktu kimikoak)».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/14.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C23-24//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Azal-tratamenduko eta urak arazteko prozesuan produktu kimikoak eduki dituzten paperezko (kaltzio hidroxidoa eta ikatz aktiboa) eta plastikozko (sulfato ferrosoa, nikel kloruroa, nikel sulfatoa eta bestelako prestakinak) zakuak bildu ondoren sortzen den hondakina da.

Big bag-etan jasotzen da eta hondakin arriskutsuen biltegi nagusian biltegiratzen da.

○ 15. hondakina: «petrolio zikina».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/15.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 160708.

– Urtean sortutako kantitatea: Hondakin puntuala.

Burdineria fabrikatzeko prozesuko makinak garbitu ondoren sortzen den hondakina da.

Balezta-bidoietan jasotzen da eta hondakin arriskutsuen biltegi nagusian biltegiratzen da.

○ 16. hondakina: «pilak».

– Identifikazioa: B20032330/2000014473/4/16.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C22//H14//A241//B0019.

– EHZ kodea: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 15 kilogramo.

Pila alkalinoen bizitza baliagarria agortu ondoren sortzen den hondakina da.

Kartoizko kutxetan jasotzen da eta hondakin arriskutsuen biltegi nagusian biltegiratzen da.

● 5. prozesua: «zianuroa eduki duten metalezko ontzien deskontaminazioa».

○ Identifikazioa: B20032330/2000014473/5.

○ Prozesuaren kodea: B9314.

Zianuroa eduki duten metalezko ontziek hainbat urberritze-eragiketa jasaten dituzte, 2.2.3 Hondakin-uren tratamendua; 0070.02/01 ITan xehatutako eragiketak prozesuko uren arazketaren instalazio fisiko-kimikotik sortutako uren tratamenduarekin. Tratamendu hori egin ostean eta deskontaminazio-helburua erdietsita, ontzi horiek hondakin ez-arriskutsu gisa kudeatu ahal izango dira eta baliotzera bidaliko dira.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Obe Hettich SL En Com (Etxezarreta industrialdea 1) enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, horiek aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Instalazioan, bertan sortutako hondakin hauek kudeatu ahal izango dira:

a.– «Zianuroz kutsatutako ontziak».

i) Obe Hettich SL En Com enpresak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Obe Hettich SL En Com enpresak.

k) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

l) Obe Hettich SL En Com enpresak PKB eduki dezaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak, eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

m) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Obe Hettich SL En Com enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo

dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

n) Obe Hettich SL En Com enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

o) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabiliz, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

p) Aurreko puntuan adierazitako erregistroan instalazioan egiten diren dosifikazio- eta tratamendu-eragiketak zehaztuko dira, honako hondakin arriskutsu hauen kasuan: «zianuroz kutsatutako ontziak», eta gutxienez ondorengo datuak agertu beharko dira:

a.– Kudeatutako hondakinen kopuruak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

b.– Hondakinen aldizkakotasuna eta dosifikazio-maila.

c.– Tratamendu-eragiketak eta kontrolerako parametroak.

d.– Tratamenduaren ondorioz sortutako hondakinen kopuruak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

e.– Horiei emandako kudeaketa, helmuga identifikatzeko datuak eta datak.

f.– Hilean behin kontrol-erregistro honen kopia bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari.

q).Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Obe Hettich SL En Com enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

r) Aurreko e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), m) eta n) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

s) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Obe Hettich SL En Com enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak:

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Industria-hondakin geldoak	120199	Zerbitzu Orokorrak	31.688
Txatarra	170405	Zerbitzu Orokorrak	214.684
Kartoia	200101	Zerbitzu Orokorrak	89.230
Papera	200101	Zerbitzu Orokorrak	1.407
Zura	200138	Zerbitzu Orokorrak	76.763
Plastikoa	200139	Zerbitzu Orokorrak	2.181
Hiri-hondakinekin batera daitezkeen hondakinak	200301	Zerbitzu Orokorrak	4.268
1. putzu septikoko lohiak	200304	Hondakin-uren tratamendua	0
2. putzu septikoko lohiak	200304	Hondakin-uren tratamendua	0

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Obe Hettich SL En Com enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo horien agiri ofizial baliokideak, aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldoarazien kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzoruaren kalitatea babesteko neurri orokorrak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Obe Hettich SL En Com enpresak III. arrisku-maila duten guneetan adierazitako neurri zuzentzaileak gauzatu beharko ditu.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferako isuriak kontrolatzea.

a) Obe Hettich SL En Com enpresak isurtzeen kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	20004738-01	Bainu elektrolitikoa 1	HF, HCN, Cu, Partikulak, KOG, NOx, Zn, HCl*, Guztizko Cr*, Ni*, SOx*	5 urte
2	20004738-02	Bainu elektrolitikoa 2	HF, HCl, HCN*, Zn*, Ni, Partikulak, SOx, NOx, Cu*, Guztizko Cr*, KOG	5 urte

* Ondorengo paragrafoan adierazten dena kontuan hartuta, BKEak atmosferan egindako neurketen txostenak erakusten dituen emaitzen arabera aztertuko da kutsatzaileak behin betiko barne hartzen diren.

b) Goiko atalean adierazitako neurketa guztiak Baimendutako Kontrol Erakunde (BKE) batek egin behar ditu (gutxienez, ordubeteko hiru neurketa, zortzi ordutan barrena neurtutakoak) eta aldizkako neurketa horiei dagozkien txostena, Ingurumen Sailburuordetzaren «BKEen gutxieneko txostenean» ezarritakoari egokitu behar zaio. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Parametroak neurtu ez badira edota ebazpen honetan neurketak egiteko ezarritako maiztasuna baina

zaharragoak badira, berriro neurtu beharko dira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzak erregistratzea.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

Nahitaezkoa da ur tratatua neurtzeko pH-neurgailu jarraiki bat eta isuritako uren emari-neurgailu bat izatea, neurketaren tokiko adierazlea, beharrezko bi puntutan alarmak, eta datu historikoak gordetzeko eta kudeatzeko sistema informatizatua dutenak. Horiek Administrazioaren esku egon beharko dute gainera.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontroleko kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharrezko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
Isurketa industriala 1	Prozesuko industria-urak	X: 561771 Y: 4790163	pH, OEK, solido esekiak, olioak eta koipeak, amoniakoa, detergenteak, guztizko burdina, guztizko nikela, guztizko zinka, guztizko kobrea, Kromoa (VI), guztizko kromoa, guztizko zianuroak, zianuro askeak, kloruroak, sulfatoak	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
			pH, eroankortasuna, Cr (VI), zianuro askeak, OEK	Astean behin	Autokontrola
			pH, emaria	Jarraikia	Autokontrola
Ur sanitarioen isurketak	2. eta 3. hobiak	X: 561951 Y: 4790117	pH, OEK, DBO5, solido esekiak, olioak eta koipeak, amoniakoa, detergenteak	Urtero	Kanpo-kontrola
Industria-uren isurketa	Hozteen purgatzeak eta konpresoreen bereizgailuak	X: 561972 Y: 4790075	pH, emaria	Jarraikia	Autokontrola
			pH, OEK, solido esekiak, olioak eta koipeak, guztizko zinka	Urtero	Kanpo-kontrola

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 255.

artikulua) eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabeteko epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Titularrak urtero aurkeztu beharko du, lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak barne hartutako substantzia arriskutsuak dituzten isurketak daudela aitortzen duen agiria. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

f) Horrekin batera, enpresak isurketaren kalitatearen autokontrola egingo du astero pH, eroankortasuna, Cr (VI), zianuro askeak eta OEK parametroetarako, eta emaitza horien laburpena hiru hilean behin igorri beharko du, kanpoko kontrolen txostenekin batera.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Adierazlea	Unitatea
Bainatutako piezen araberako produktu kimikoen kontsumoa	Kg/bainatutako pieza tona
Bainatutako piezen araberako ur-kontsumoa bainutan	m3/bainatutako pieza tona
Bainatutako piezen araberako energia-kontsumoa bainutan	kWt/bainatutako pieza tona
Bainuetan sortutako hondakin arriskutsuak	Kg/bainatutako pieza tona

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamena ebazpen honen C.6 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da, martxoaren 30a baino lehen beti, eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Gipuzkoako Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta Ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua, behar den bezala xehatua, barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurtzeen eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (28.630 epigrafea «Sarrailak eta burdineria fabrikatzea» eta 28.510 epigrafea «Metalen tratamendua eta estaldura»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Obe Hettich SL En Com enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan jasotako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa-mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera,

balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, produktu kimikoak, hondakin-urak araztearen ondoriozko hondakinak, etab. maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

i) Hidrokarburoen bereizgailuak aldian-aldian ikuskatuko dira, hondakinak pilatu ez daitezen; dekantagailuetan eta bereizgailuetan metatutako lohiak eta flotatzaileak aldian-aldian kendu behar dira. Hondakin horiek baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

j) Bereizgailuan metatutako lohiak, olioak eta koipeak aldian-aldian kendu behar ditu baimendutako kudeatzaile batek. Isuriaren kantitateari eragiteko moduko mailetan metatzea saihestuko du.

k) Hidrokarburoen bereizgailuaren mantentze-lanei dagokienez, ondo garbituko dira eta aldiro bertan metatutako lohiak eta flotagarriak kenduko dira. Baimendutako Kudeatzaileak erretiratuko ditu.

l) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

m) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

n) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

o) Arazteko instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, hori tratatzeko.

p) Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako

solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren ohantzea garbituko du, garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuz.

q) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

r) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

s) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu horretan, honako baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Estazioan erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko gai xurgatzailea egongo da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

Berme-neurri gisa, pH eta erredox-aren zunda bikoitza eduki behar da, eta arazte-prozesuko puntu kritikoetan izaten diren kontsigna-puntuen desbideratzeei dagozkien alarmak jarri.

Hausturen, ustekabeko gainezkaldien eta abarren ondorioz gerta daitezkeen jarioei eusteko, gasolioa biltegiratzeko eta manipulatzeko instalazioak modu egokian isolatuko dira.

Araztegia ustiatzeko enpresa espezializatu batek egindako protokolo edo eskuliburu bat izango da nahitaez, eta ekipo elektromekaniko, zunda, mintz, dosifikatu eta kontrolatzeko tresna eta abarren azterketa eta mantentze-lanak finkatuko dira bertan.

Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez.

Halaber, prozesuaren funtzionamendu egokiaren ustiapen- eta zaintza-eskuliburua izango da. Aldizka egindako mantentze-lanen eta kontrolen eragiketak, zein antzemandako gorabeherak jasoko dira bertan, eta enpresa espezializaturen bat bertaratzea aholkatzen da.

Era berean, nahitaez kontratu bat sinatzea eskatzen da araztegiaren mantentze-lanetarako, eta prozesuaren, errendimendu eta arazketaren, ekipo elektromekaniko eta sentsoreen funtzionamendu egokia ikuskatzeko.

Enpresa espezializatu batek egindako araztegiaren mantentze-lanen protokolo edo eskuliburu bat eduki behar da nahitaez, eta bertan, hauek finkatuko dira: ekipo elektromekanikoen mantentze-lanak, arbastuen garbiketak, gehiegizko solido, lohi etab.en purgatzeak, erreaktore biologikoko lohien kontzentrazioaren aldizkako jarraipena barne, horiek behar bezala purgatu eta erretiratzeko.

Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

t) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ezbeharrez gertatzen diren isurketak, kontrolik gabeko isurtze atmosferikoak, zaratei buruzko kexak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio berehala Ingurumen Sailburuordetzari.

u) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 18 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

– Gertakari mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isurtzeei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.

– Aurreikusitako neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

v) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzean, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Obe Hettich SL En Com enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko

dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE araudian aurreikusitako erregistratu eta ebaluatzeko prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako Bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3.1.e) eta B.1.3.2.c) (hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.1.3.1.n), B.1.3.1.o) eta B.1.3.2.e) (hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistroen eredua); B.1.4 (lurzoruaren kalitatea babesteari buruzko baldintzak); C.1 (atmosferarako isurtzeen kontrola); C.1.1 (isurtze atmosferikoen erregistro-eredua); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (mantentze-lanetan sortutako isurtzeak eta hondakinak kudeatzeko proposamena); D.3.a) (prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.g) (larrialdi-egoera batean berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezko materialak); D.3.h) (kubetak husteko maniobraren eragiketa-kontrolaren prozedura); eta D.3.v) (Suteen aurkako babesaren ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edozein modutan ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Obe Hettich SL En Com enpresak Ebazpen honen xede den kobreztaketa eta nikeleztatzearen bidez egindako azal-tratamenduen jardueraren inguruan titulartasun-aldaketarik egingo balu, aldaketa jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Obe Hettich SL En Com enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Obe Hettich SL En Com enpresari, Aizarnazabalgo Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.